

Ezpalak

JON TORNER

Elena Odriozolak irabazi du Ilustrazioko Euskadi Saria



AURRENEKOZ eman dute Ilustrazioko Euskadi Saria. Elena Odriozola donostiarrak irabazi du, *Aplastamiento de las gotas* (Laberinto de las artes) liburuko

marrazkiengatik. Julio Cortazarrek idatzi zituen maitasun istorio malenkoniatsua jasotzen duen liburuko testuak. Ruben Ruiz gasteiztarrak, bestalde, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria lortu du, *Anekdotak* liburuarekin (Pamiela). Gaztelaniazko Literatura Euskadi Saria, berriz, Luisa Etxenike donostiarrak jaso du, atentatu batean hildako bizkartzainaren semeari buruzko istorioarekin. *El ángulo ciego* eleberria Bruguera argitaletxeak plazaratu du.

Film amerikar batek irabazi du Sanferminetako Bideo Lehiaketa

JENNY BENEDICTO estatubatuarren *Ya falta menos* animaziozko filmak irabazi du Sanfermin.tv webguneak antolatutako lehiaketa. Txaranga bat osatzen duten plastilinazko zezenak dira hiru minutuko iraupena duen istorioko protagonistak. Aipatu webgunean duzue ikusgai.

Durangoko Azoka

hurreratzen doan heinean, disko eta liburu berrien aurkezpenak ugaldu egin dira. Disko-erregimenak, honatzen azken egunotan plazaratutako nobedeetako batzuk: *Bizitzari txistuka* (Betagarri. Elkar), *Heldu eskutik* (Iñaki Etxezarraga Etxe. Baga Biga), *Cymeus* (Pantxo Bergara Xabaltx. Agorila) eta *16 lore* (Gari. Elkar). Barricadak ere disko berria du: *La tierra está sorda* (Warner Music).



David Cox kanadar

gaztea euskara ikasten ari da Internet bidez. Euskal musika oso gustuko du, eta hamarkadako Top 10a egitea ausartu da: "Hemen daude milurteko Euskal diskorik garrantzitsuenetako batzuk, entzun ditudan hamarkada honetako euskarazko ehunka lanen artean aukeratuak. Bikaintasuna, eternitate, ospea eta kritikaren oniritzia uztartzen dituzte": 1. *Maren* (Kepa Junkera), 2. *Maite Zaitut* (Pirritx eta Porrotx), 3. *Nomadak TX* (Oreka TX), 4. *Desertore* (Oskorri), 5. *Xoriek 17* (Mikel Laboa), 6. *Itsas Ulu Zolia* (Benito Lertxundi), 7. *Hamar T'erdietan* (Ruper Ordorika), 8. *Gelditu Denbora* (Ken Zazpi), 9. *Disko Infernu* (Gati-bu) eta 10. *Libre* (Berri Txarrak).



• **Anari, *Irla izan diskoaz Berrian*:** «Saiatu naiz beste modu batean idazten, baina ohartu naiz horretarako dena lehertu beharko nukeela. Anari gisa ezingo nuke; beste zerbait litzateke. (...) Nik nire mugak onartuak ditut. Gainera, gero eta gehiago ikusten dut disko bat grabatzea bakoitzaren mugak onartzea dela. Ideia bat daukazu, hitza, melodia, moldaketa... eta gero kantua ideia horren azpitik gelditzen da. Eta hori batzuetan etsigarria izan daiteke».

• **Gara egunkariaren *Mugalari* gehigarriak kultur politikari buruzko iritziak jaso ditu:**

Miren Jaio: «*Bilbo Efektuak* ordezkatzeko duen kultur politikaren sedukzioan erori dira euskal instituzio gehienak, enpresa gisa kudeatutako eta kontsumo

masibora zuzendutako ekipamendu fotogeniko handi baten arrakasta errepikatze nahi hutsalean. Apustu hau porrotera bideratuta dagoela dirudi».

Iñaki Arzo: «Nafarroako linbo kultural zabalean ia denentzat dago lekua —promesak, marketina, turismoa, erlijioa—, baina ez askatasunezko adierazpenak, sormenak eta kritikentzako espazio publikoentzat».

Arturo F. Rodriguez: «Azpiegituretako gehiegikeriak eta kulturaren festibalizazioa dira azken urte hauetan egindakoaren ageriko parteak. Ikusteko zailago dira denbora tarte honetan erakunde eta botere publikoek barneratutako dinamikak, hala nola, lanprekariatetaren zabaltzea kulturaren esparrurak».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php